

HITZ BITAN

EUSKARA. Lefort-en espetxeratzea salatu dute**Jendea seinaleetika elebakarra tindatu edo moztera deitu dute Jean-Francois Lefort-en kideek**

Eneko Bidegain | BAIONA

2001eko apirilaren 10ean bost ziren. Atzo, bi eskas zituzten: bat ez zen etorri ahal lanarengatik; bigarrena, aldiz, preso dagoelako. Jean-Francois Lefort duela hamabost egun sartu zuten preso, egun hartan bide seinale elebakarrak moztu zituelako Angelun, eta horrek ekarritako isuna ez zuelako ordaindu. 30 egun iragan ditu Baionako espetxean.

Lefortekin batera ekintza egin zutenek, «damurik ez» daukatela berretsi zuten. «Frantses hutsez diren bide seinaleak gure ingurunetik desagerrarazteko deia» zabaldu zuen Xabi Larralde, bost ekintza egileen izenean. Horretarako bide seinaleak «tindatu» edo «moztea»

proposatu zuen. Larralde ez zuen onartu «ondasun publiko-en andeatzea» leporatzea. «Euskara ondasun publikoa da, eta ez bakarrik euskaldunena, baizik eta mundu osoarena», azpimarratu zuen.

Euskal Konfederazioaren sostengua

Mixel Oronos Euskal Konfederazioko bozeramaileak elkartasuna adierazi zuen, Demoak, Euskal Herrian Euskaraz, Askatasuna, AB eta Batasuna taldeek bezala. «Larriagoa iruditzen zait kultura bat eta nortasun bat adierazteko balio duen mihi baten moztea, bide seinale baten moztea baino», erran zuen Oronosek. Iñaki Etxeleku ekintza egileetako batek Unescoren azken txostena eta Siadecoren az-



GAIZKA IROZ

Preso dagoen Leforti elkartasuna eta sostengua adierazi zioten atzo.

ken inkesta gogora ekarri zioten. «Gure ekintzaren lekuak bazuen erranahi bat». Hots, Baiona, Angelu eta Miarritzen gazteen %1 baizik ez da euskalduna.

Alta, antolaketa eskemaren hitzkuntza atalak «euskarak lekua seinaleetika guztian» behar

duela zehazten duela azpimarratu zuen Etxelekuk. Haute-tsiak, hitzetan euskararen eta hizkuntza politika baten alde agertzen badira ere, «mementoz ez da deus gauzatzen» salatu zuen.

Angeluko bide seinalearen moztearen «hobenduna ez da

kondenatua» gehitu zuen Oronosek. «Hobenduna Frantzia da, ez duelako hizkuntza gutxituen euroagiria berretsi» zehaztu zuen. Lekuko hautetsiei ere zuzendu zitzaion, gogorazita Konstituzioaren bigarren artikulua ez duela debekatzen euskara gehiagoren sartzea.

INGURUMENA. 2001erako energiaren %10 iturri garbietatik ekoitzi nahi dute

RAUL BOGAJO / ARGAKZI PRESS

**Jaurlaritzaren bisita
Elgeako parke eolikora**

Eusko Jaurlaritzako kideek Elgeako parke eolikora bisita egin zuten atzo. Hala ere, eguraldiak hain errotak behar bezala behatzea eragotzi zuen. Guztira, 4.100 metroko parkea, eta guztira 40 hain errota. Elgeako parke eolikoa Eusko Jaurlaritzak onartutako Euskadiko Energia Estrategian sartuta dago, eta 3E-2005 Planean azaldutako proiektua da. Industria, Merkataritza eta Turismo

sailburu Josu Jon Imazek adierazi zuenez, «plana-rekin 2010ean Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian ekoitziko den energiaren %12 iturri berriztagarrien bidez lortu nahi dugu». Gainera, urtean sortuko den argindarra 65-75 milioi KW-koa dela gaineratu zuen Eusko Jaurlaritzak; hau da, 100.000 pertsona inguruk etxean egiten duten kontsumoaren parekoa. Eusko Jaurlaritzako kideek elkarrekin egindako bisitaldia izan zen atzokoa, beraz. Hala ere, aukeratutako eguna ez zen egun aproposena izan. Izan ere, bertan zegoen behe lainoak Elgeako parke eolikoko haize errotak ezkutuan utzi zituen.

AZPIEGITURAK

AHTk Zaragoza eta Castejon artean izango duen ingurumen-inpaktua ebaluatzen hasi dira

Espainiako Sustapen Ministerioak Ingurumen Ministerioari bidali dio Abiadura Handiko Trenak Zaragoza eta Castejon (Nafarroa) artean eragingo duen ingurumen-inpaktuari buruzko txostena, azken horrek azter dezan. Intecsa-Inarsa enpresa hasi zen iazko martxoan azterketa egiten. Aipatu tartear gain, Ginebra-Cabañas-Casetas lotuko dituen hirukia ere aztergai izan dute. Castejongo geltokitik igaroko den trenak Madril-Zaragoza-Bartzelona-Frantziako muga linearekin bat egingo du, eta Nazioarteko trenbide sare garrantzitsuarekin bat egingen. Aragoi eta Nafarroa arteko linea zehaztea du xede azterketak.

HEZKUNTZA

Hezkuntzan euskara sustatzeko 555.000 euro emango ditu Eusko Jaurlaritzak

Hezkuntzan euskara sustatzeko 555.000 euro ematea erabaki zuen atzo Jaurlaritzak. Lehen 135.000 euroak eskolaz kanpoko ekintzak sustatzeko dira. Beste 120.000, berriz, ikasleek euskara eta gaztelania menperatzeko, eta azken 300.000 euroak ahozko euskara sustatzeko.

EUSKARA

Euskarazko terminologia aztertze-ko batzordea sortu du Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzak euskarazko terminologia aztertu eta euskararen erabilpena gomendatzeko batzordea sortzea erabaki zuen atzo. Batzorde horrek lan proposamenak egiteko, lehentasunak jartzeko eta aurrez egindako terminologiaren inguruko lanak bideratzeko ardura izango du.

ABELTZAINZA

Otsoen erasoek kalteturiko Urduña eta Karrantzako artzainekin bilduko da gaur eta bihar EHNE sindikatua

Nekazari eta abeltzainen EHNE sindikatuak Urduña eta Karrantzako artzainekin bilerak egingo ditu gaur eta bihar, otsoek abereei egindako erasoen inguruan mintzatzeko. Urduñako Kultur Etxean egingo da gaur lehen bilera, eta bihar, berriz, sindikatuak Karrantzan duen egoitzan bilduko dira. EHNERen arabera, otsoen erasoen berri zehatza jakitea eta aurrera begira hartu beharreko neurriak hartzea da bileren helburua.